


MEMORIA 2009-2010





MEMORIA 2009-2010

01/ Sarrera	6
02/ Aurkezpena	8
2.1. Eginkizunak	10
2.2. Xedea	11
2.3. Ikuspegia	11
2.4. Balioak	11
03/ Gobernu, kudeaketa eta aholkularitza organoak	14
3.1. Kudeaketa organoak	16
3.1.1. <i>Plantilla</i>	16
3.1.2. <i>Arloko zuzendaritzak</i>	16
3.1.3. <i>Arroen bulegoak</i>	17
04/ Uraren kudeaketa	18
4.1. Milurtekoaren helburuak	19
4.2. Uraren esparru zuzentaraua	19
05/ Jabari publiko hidraulikoaren kudeaketa	22
5.1. Hobetzeko jardunak	23
5.1.1. <i>Espedienteen kudeatzailea ezartzea</i>	23
5.1.2. <i>Prozeduren eskuliburua</i>	23
5.1.3. <i>Plan hidrologikoaren araudia</i>	24
5.1.4. <i>Lurretik itsasora isurtzeari buruzko dekretua</i>	24
5.1.5. <i>Hornidura eta saneamenduari buruzko esparru-erregelamendua</i>	24
5.1.6. <i>Ikuskaritza eta laborategia hobetzea</i>	24
5.2. Baimen, emakida eta isurketen arloa	25
5.2.1. <i>Lan-baimenak</i>	25
5.3. Ur aprobetxamenduak	26
5.3.1. <i>Uraren kanona</i>	27
5.3.2. <i>Ibilguak mantentzeko zerbitzua</i>	27
5.4. Isurketak	28
5.4.1 <i>Isurketak kontrolatzeko kanona</i>	29
5.5. Ikuskatzeko arloa eta laborategia	30
5.5.1. <i>Ikuskatzea</i>	30
5.5.2. <i>Laborategia</i>	30




06/ Plangintza eta lanak	32
6.1. Plangintza hidrológicoa	33
6.1.1. <i>Eaen plan hidrológicoak egitea</i>	34
6.1.2. <i>Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak</i>	35
6.1.3. <i>Informazio sistemak</i>	35
6.2. Laguntza lineak eta lankidetzak hitzarmenak	36
6.2.1. <i>Araba 2009-2010 hitzarmenak</i>	36
6.2.2. <i>Bizkaia 2009-2010 hitzarmenak</i>	37
6.2.3. <i>Gipuzkoa 2009-2010 hitzarmenak</i>	37
6.2.4. <i>2009-2010 aldiko hitzarmen orokorrak</i>	37
6.3. Ebaluazioa	38
6.4. Uholde arriskua	40
6.5. Lanak	40
07/ Nazioarteko akordioak, lankidetzak (Odm) eta nazioarteko presentzia	42
7.1. 2009ko azaroaren 26an UNICEFek eta Urak sinaturiko lankidetzak hitzarmena	43
7.2. Protokoloa NGBPrekin	43
7.3. Milurtekoaren garapenaren helburuak lortzeko ekarpena	44
7.4. Unescoren baliabide hidrikoak ebaluatzeko munduko programa	44
7.5. Uraren parte-hartzea eskualdeetako gobernuetan Europan eta mundu osoan (Encore eta Ngr4sd)	45
7.6. Uraren parte-hartzea Europan Batasunaren deialdietan	45
7.7. Uraren munduko foroa	45
7.8. Stockholm 2010eko World Water Week	45
7.9. Mugaz gaindiko bilera konferentzia Atlantiko Transpiriniarrarekin	45
08/ Aurrekontuak	46
8.1. Ustiapen aurrekontua	47
8.2. Kapital aurrekontua	49
09/ Komunikazioa	50
9.1. Erantzukizun soziala	51
9.2. Gizarte sensibilizazioa	52
10/ URA eta gobernu korporatibo ona	54
10.1. Pertsonak kudeatzea	55
11/ Erronkak	58



Iñaki Urrizalki Oroz

ZUZENDARI NAGUSIA





A diskide maiteok:

Honen bitartez URA Uraren Euskal Agentziaren 2009-2010 aldiko memoria aurkezten dizuet, bi urte horietan egindako lan eta ekintza nagusiak biltzen dituen. URA Eusko Jaurlaritzaren erakunde bat da, Euskadiko ur-politika kudeatzeaz arduratzen dena Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Ur Sailari atxikita dago, eta Foru Aldundiek ere parte hartzen dute haren gobernu-organoan.

Hiru urteko ibilbidean, Agentzia erreferentziazko administrazio bihurtu da dagoeneko EAEko uren arloan, eta, ildo horretan, politika modernoa bultzatu du, arazo nagusiak konpontzeko ingurumena zainduz eta parte-hartzean oinarrituz.

URA agentzian dihardugunok memoria hau irakurtzera gonbidatu nahi zaitugu; behin irakurketa amaiturik, bidali iezazkiguzu, mesedez, zure iritzi eta iradokizunak, ezbaierik gabe gure eguneroko kudeaketa hobetzeko lagungarri izango direlako. ■

01

Sarrera






Denok ondo dakigunez, “URAK BIZIA DAKAR”. Bizia hitzaren zabaltasun osoan eta zibilizazio eta ingurune guztietan. Ura ondasunik preziatuena eta pobreziatik irteteko ihesbidea den neurrian, nola gizaki bakoitzarentzat hala komunitate osoarentzat. Ura kudeatzea funtsezkoa da, baldin eta munduak iraunkortasuna bete-betean lortu nahi badu.

2009an NBEren Ur Sailak uraren eskasiari eskaini zion Uraren Munduko Eguna, arazoa munduko herrialde pobreenetan areagotzen ari dela aintzat hartuta. 2009. urtean, **Uraren Munduko Egunak, mugak zeharkatuz batu egiten gaituzten baliabide hidrikoetan jarri zuen arreta guztia**. Ildo horretan, funtsezkoa da mugaz haraindiko baliabide hidrikoen kudeaketak eskain ditzakeen lankidetzak sustatzen jarraitzea. Bestetik, 2010. urteko leloa “**Uraren osasuna gure esku**” izan zen, erantzukizuna guztiona eta bakoitzarena dela gogora ekartzeko. ■



Aurkezpena

02





URA Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bitartez sortu zen Agentzia, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

URA sortu da Europar Batasunaren Uraren Esparru Zuzentarauaren eskakizunak betetze-ko helburuarekin, hau da, 2015eko abenduaren 31 baino lehen azaleko zein lurpeko ur-masa guztiek egoera onean egon behar dutela aintzat hartuta. Hori guztia Uraren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentaraua bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren adminis-trazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakaba-naketa saihestuz.

Uraren Euskal Agentziaren jardun-ildo nagusiek honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- EAEko ur-masen egoera ekologikoa hobetzea.
- Hornidura unibertsala lortzea, behar adinako kantitatean eta kalitatean.
- EA Eren saneamendu-planak gauzatzea.
- Ura eraginkortasunez administratzea, behar adinako masa kritikoa duten ur-erakunde ku-deatzaileen jarduna indartuz.
- Ur-baliabideak ikertzea eta era iraunkorrean aprobetxatzea.
- Uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko jardunak egitea.
- Uraren eremuan berrikuntza teknologikoa sustatu eta bultzatzea
- Informazioa eta prestakuntza, uraren kudeaketan inplikaturako giza baliabideen maila igotzeko.
- Nazioarteko ekimenetan laguntzea, uren arloan milurtekoaren helburuak lortzeko.



2.1. Eginkizunak

Agentziak 1/2006 Legearen 7. artikuluan jasotako eginkizunak betetzen ditu, hau da:

- Lege horretan hidrologia planifikatzeko jasotako tresnak egitea eta Jaurlaritzaren esku uztea, onartu, aldatu edo izapide daitezen eskumeneko agintarien aurrean.
- Erkidego arteko arroen estatu-plangintza hidrologikoan parte hartzea, araudi erregulatzailerekin bat etorritik.
- Jabari publiko hidraulikoa babesteko esku-hartzea, bereziki emakida eta baimen administratiboak emanez, baina baita jabari publiko hidraulikoa zainduz, ikuskatuz eta araudi erregulatzailerak hausten dutenak zehatuz ere.
- Bere jardun-eremuei dagozkien gaien xedapen orokorrei buruzko proiektuak egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko agintariei bidaltzea.
- Estatuko Administrazioak transferitutako, eskuordetutako edo agindutako eskumenak.
- Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- Ur Erregistro Orokorraren antolamendua eta funtzionamendua.
- Ereku Babestuen Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua.
- Kanon edo zergen aplikazioari buruzko azterlana eta txostena, indarreko araudiarekin bat etorritik.
- Indarreko legerian urei dagokienez ezarritako zergak kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea.
- Plan orokorrei, arau subsidiarioei, plan partzialei eta plan bereziei buruzko txosten loteslea ematea, hasierako onarpenaren ostean. Txosten espezifikoa da, udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babes eta erabileraren arteko harremanari buruzkoa, eta ez dio kalterik egiten sektore- eta/edo ingurumen-arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste lege batzuek ezarritakoari. Txostena aldekoa izango da baldin eta bi hilabeteko epean ematen eta jakinarazten ez bada.
- Jaurlaritzari uholdeak gerta daitezkeen eremuetan beharrezkotzat jotzen diren erabilera-mugak ezar ditzala proposatzea, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.
- Lehorretik itsasora isurtzeko baimena ematea.
- Itsas-lehorreko zortasuneko eremuetarako baimena ematea, eremu horiek zaindu eta ikuskatzea eta dagozkion zehapenak ematea.
- Bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten diru-laguntzak ematea.
- Lege eta erregelamenduek esleitzen dizkieten gainerako eginkizun guztiak, hornidurako, saneamenduko eta ureztatzeko politikari dagokionez bereziki, baita kudeaketa-organo eta erabiltzaile-komunitateen gaineko kontrola eta esleitzen dizkieten gainerako guztiak ere.
- Jabari publiko hidraulikoaren babesa eta kontserbazioa bermatzea, gai horretan eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta.



	URA	FORU ALDUNDIAK	TOKI ADMINISTRAZIOA
PLANGINTZA	██████████	-----	-----
BAIMENAK ETA EMAKIDAK	██████████		
ZAINTZA ETA ZEHAPENA	██████████		
KANONAK ETA TASAK	██████████		██████████
INTERES OROKORREKO OBRAK	██████████	-----	
LURRALDE HISTORIKOETAKO INTERESGARRIAK	-----	██████████	-----
HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	-----		██████████

2.2. Xedea

- Euskadin uraren politika aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzaren tresna nagusia izatea da Agentziaren xedea, Uraren Esparru Zuzentarauarekin bat etorriz. Horrek esan nahi du ur-masen kalitatearen, kantitatearen eta egoera ekologiko egokiaren alde egitea, eraginkortasunez eta gainerako administrazioekin eta uraren erabiltzaile guztiekin elkarlanean.
- EAEko herritar guztiek ura behar adinako kantitatean eta kalitatean eskuragarri dutela bermatu behar du Agentziak, ingurumena zaindu eta errespetatzen duen esparru batean.
- Halaber, uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko ekintzak sustatu behar ditu.

2.3. Ikuspegia

- Politikak ezartzea: ura baliabide publikoa dela aintzat hartuz, uraren kudeaketa iraunkorra eginez, eta, une oro, premia handiena duten tokiekiko bidezko elkartasuna sustatuz.
- Zerbitzu-ematea: erabiltzaileenganako hurbiltasuna, bizkortasuna, gardentasuna, eraginkortasuna eta zerbitzura iristeko erraztasunak.
- Baliabide propioen kudeaketa: pertsonen garapenerako ekintzak ezartzea eta baliabide materialen kudeaketaren eraginkortasuna.
- Gizartearen alde egitea, ur baliabideari eta baliabidearen kudeaketari buruzko informazioa eta jakintza sortuz erabateko gizarte-erantzukizuneko ikuspegi batetik.

2.4. Balioak

- Prestakuntza-maila handiko profesionalen taldea.
- Talde-lana, koordinazioa, administrazio arteko lankidetzak, gardentasuna eta pertsonen parte-hartzea.
- Mugape hidrografikoen kudeaketa eta plangintzaren batasuna errespetatzea.
- Tratamendu eta plangintza integrala, uraren ekonomia, baliabidearen iraunkortasuna.
- Uraren kudeaketa publikoa lurraldearen antolamenduarekin eta ingurumenaren kontserbazio, babes eta berritzearekin bateragarri egitea .
- Prebentzio-politika, urak eragindako uholde eta hondamendien aurrean.
- Elkartasuna, erantzukizuna, eta uraren erabiltzaileak uraren erabilera eta kudeaketan era-



gindako kostuak ordaintzea.

- Jende guztiak ur-gaiei buruzko informazioa eskuragarri edukitzea.
- Ura merkatuaren legeez eta salerosketa libreaz aparteko ondasun publikoa delako iritzian oinarritutako politika.
- Hornidurako, saneamenduko eta arazketako zerbitzu publikoak eraginkortasunez eman daitezela sustatzea. ■





Gobernu, kudeaketa eta aholkularitza gobernuak

03





URA Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, 2006ko ekainaren 23an Eusko Legebiltzarrak onartutako Uraren Euskal Legeak sortua. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikita dago, eta 2008ko urtarri-laren 1etik Uren Zuzendaritzako partaide da. Uren Zuzendaritzak 1994tik darama jardunean, hain zuzen ere transferentzia gertatu zen uneaz geroztik. Nolanahi ere esan beharra dago URA Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere badela, arlo horretan eskumenekoak izaki agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen baitute modu paritarioan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien ordezkariak osatzen dute Administrazio Kontseilua, modu paritarioan, eta gainera, URA agentziak parte-hartze eta aholkularitzarako beste bi organo ditu.

Batetik, Erabiltzaileen Batzarra, Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alorreko eskumeneko Ministerioaren, lurralde historikoetan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELEk izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak biltzen dituen.

Uraren Kontseiluan, berriz, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak hartzen dute parte.

GOBERNU ETA ZUZENDARITZA ORGANOAK	PARTE-HARTZE ETA AHOULKARITZA ORGANOAK	KUDEAKETA ORGANOAK	KOORDINAZIO ORGANOAK
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA	ERABILTZEEN BATZARRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN URAREN KONTSEILUA	ZUZENDARITZA NAGUSIA Eremuko Zuzendaritzak Erakundeekiko Harremanetarako eta Berrikuntzako Zuzendaritza Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza Plangintza eta Lanen Zuzendaritza Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritza Arroen Bulegoak Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoa Ekialdeko kantauriar arroen bulegoa Mediterraneoko arroen bulegoa	ZUZENDARITZA BATZORDEA

3.1. Kudeaketa organoak

3.1.1. Plantilla

158 langilek osatzen dute Uraren Euskal Agentzia. Gehienak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Uren Zuzendaritzako kideak dira, eta 2010eko abenduan 147 plaza zeuden beteta, gutxi gorabehera.

KATEGORIA	2009/12/31n	2010/12/31n
ZUZENDARITZA NAGUSIA	1	1
ARLOKO ZUZENDARITZA-BULEGOKO BURUZAGITZAK	6	7
TEKNIKARIAK ETA BITARTEKO AGINTARIAK	100	101
ADMINISTRARIAK	32	38
GUZTIZKOA	139	147


URA agentziako bulego nagusiak Arabako Parke Teknologikoan daude, Miñanon, baina aurreikuspenen arabera 2011n beste egoitza batera aldatuko dira.



3.1.2. Eremuko zuzendaritzak


Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak lau Zuzendaritzatan antolatzen dira, zuzendari nagusiaren mende:

- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritza
- Erakundeekiko Harremanetarako eta Berrikuntzako Zuzendaritza
- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza




3.1.3. Arroen Bulegoak

Gainera, Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoko Arroen Bulegoa (Gasteiz).



Uraren kudeaketa

04





Europar Batasunak uren arloan daraman politika gero eta zorrotzagoa da, eta gero eta helburu argiagoak dauzka. Asmoak ere, gero eta handiagoak ditu. Dagoeneko ez da nahikoa helburu mugatuak dituzten politikak abian jartzea, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala eraman nahi da aurrera. Administrazio publikoei dagozkien egikaritzeko eta abian jartzeko tresnen garapena eskatzen du politika horrek, zehazkiago, euskal administrazioek zenbait erabaki hartu behar dituzte ondasun natural horren kudeaketaren inguruan.

4.1. Milurtekoaren helburuak

2000ko irailean Nazio Batuen Milurtekoko Goi-bileran onartutako Milurtekoaren Adierazpenak zortzi helburu jaso ditu.

Helburu bakoitzak zenbait jomuga ditu, 18 jomuga guztira, 48 adierazle zehatzen bitartez kuantifika daitezkeenak. Lehen aldiz, garapenaren nazioarteko agendak eguna jarri du neurtzeko moduko akordio zehatzak lortzeko.

Zehazkiago, urarekin zerikusia duten milurtekoaren garapen-helburuei dagokienez, 7 helburua ingurumenaren iraunkortasuna bermatzeari dagokio, eta, horren barruan, 7c jomugak zera dio, edateko ura eskuratzeko modurik ez dutenen ehunekoa 2015erako erdira murriztu beharko litzatekeela. Oro har, milurtekoaren garapen-helburu guztiak urari lotuta daude nolabait.

4.2. Uraren esparru zuzentaraua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauak uren politikaren eremuan jarduteko erkidego-esparru bat ezartzen du.

Zuzentarau horren bitartez, Europar Batasunak ur guztien (azalekoak, kontinentalak, transiziokoak, kostaldekoak eta lurpekoak) kudeaketa antolatzen du, ur horien kutsadura prebenitu eta murrizteko, erabilera iraunkorra sustatzeko, ur-ingurunea babesteko, ur-ekosistemen egoera hobetzeko eta uholde eta lehorteen eraginak arintzeko.

Uraren Esparru Zuzentaraua legezko erreforma sakona eta berritzailea da ur-kudeaketaren arloan. Ekosistemak babestearen, uren erabilera iraunkorraren eta parte-hartze publiko aktiboaren printzipioetan oinarritzen da. Printzipio horiek oinarritzat hartuta, ur-ekosistemak babestea eta hobetzea ezarri du helburu orokor gisa, horrek ahalbidetuko duelako 2015ean urak egoera onean egon daitezen lortzea, eta ura garapen iraunkorrerako eskuragarri egon dadin bermatzea.



Helburu horiek lortzeko, plan hidrológicoak eta neurri- eta jarraipen-programak zehaztu behar dira, eta Zuzentzarauak zenbait jarraibide ezarri ditu horiek lantzeko, baita kontuan hartu beharreko faseak ere. Horri estu lotuta, Esparru Zuzentzarauaren 14.1 artikulua eskatzen du, halaber, plan hidrológikoen aplikazioan, eta, bereziki, elaborazioan, aztertzean eta eguneratzean interesatutako alderdi guztien parte-hartze aktiboa sustatu beharko litzatekeela.

Estatu kideek beren lurraldean kokatutako arro hidrográfico guztiak zehaztu behar dituzte, eta mugape hidrográficoen barnean bildu. Estatu bat baino gehiagoko lurralde batean barrena hedatzen diren arro hidrográficoak nazioarteko mugape hidrográfico batera bilduko dira. 2005. urtean Estatu kideek honako hauek aurkeztu zituzten: mugape hidrográfico bakoitzaren ezau-garri buruzko azterketa, giza jarduerak uretan duen eraginari buruzko azterlana, ur horien erabileraren azterketa ekonomikoa eta babes bereziaren premia duten eremuen erregistroa. Gainera, giza kontsumorako ura biltzeko ur-masa guztien artean egunean batez beste 10 m³ baino gehiago ematen dutenen edo berrogeita hamar pertsona baino gehiago hornitzen dutenen erregistroa egin zuten. EA Eren administrazio hidraulikoak informazio hori eman zuen “barneko Arroen Mugapearen eremurako 2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentzarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostenaren” bitartez, 1994ko uztailearen batean eskumenak eskualdatu zirenean.

Ondorengo fasean, Zuzentzari honetan eta Plangintza Hidrológicoaren Erregelamendua onartzen duen uztailearen 6ko 907/2007 Errege Dekretuan araututako plan hidrológicoak onartu dira, eta une horretan fase horretan gaude. Uraren Euskal Agentzia, eskumeneko beste adminis-trazio batzuekin elkarlanean (Kantauriko eta Ebroko konfederazio hidrográficoak, foru-aldun-diak, partzuergoak eta abar), plangintza hidrológicoari buruzko dokumentuak lantzen ari da. Gainera, plangintza horri jarraiki, uholde-arriskuen ebaluazio eta kudeaketari buruzko 2007/60/EE Zuzentzarauan aurreikusitako tresnekin bat etortzearen aldeko lehen urratsak egiten ari dira. Arlo horri zabalago helduko zaio memoria honetako plangintza eta obrei buruzko atalean. ■





Jabari publiko hidraulikoaren kudeaketa

05





5.1. Hobetzeko jardunak

2010. urtean, jabari publikoa kudeatzeko arloan honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- Espedienteen kudeatzailea ezartzea.
- Jabari publikoa kudeatzeko espedienteak izapidetzeko prozedurei buruzko eskuliburua.
- Plan hidrológicoaren araudia.
- Lurretik itsasora isurtzeari buruzko Dekretu-proiektuaren berrazterketa.
- Hornidurari eta Saneamenduari buruzko Esparru Erregelamenduaren zirriborroa idaztea.
- Ikuskatzerako eta Laborategirako hobekuntzak diseinatzea.

Jarraian, jardun guztiak deskribatuko ditugu, banan-banan.

5.1.1. Espedienteen kudeatzailea ezartzea

Funtsezko tresna jabari publikoa kudeatzeko espedienteak izapidetzeko. Honako hauek ahalbidetuko ditu:

- URA agentziarako espedienteak izapidetzeko prozedura bakarra.
- Espediente baten edozein dokumentu edo izapide erakunde osoarentzat ikusgai jartzea.
- Izapidearen eta izapide-dokumentuen hobekuntza optimizatzea.
- Espedientearen kontrola. Epeak amaitzeagatik abisuak sortzea.
- Arduradunak zehaztea.
- Estatistiken eskuragarritasuna (memoria eta abar).
- Sarrera eta irteeren erregistroarekiko konexio automatikoa.
- Erregistroak automatikoki sortzea: Ur-erregistroa, GIS.
- Beste izapide batzuetarako (isuri-kanona, okupazio-kanona, uraren kanona) informazioa automatikoki eskualdatzea.

2010eko azaroan, “Obrako baimenen familia” ekoizten hasi zen.

5.1.2.2 Prozeduren eskuliburua

Jabari publikoa kudeatzeko espedienteak izapidetzeko prozedurei buruzko eskuliburua sortzeko lanak hasi dira. Eskuliburu hori funtsezko tresna izango da izapidetze horietan irizpideak argitu eta bateratzeko.

2010. urtean, jabari publikoa kudeatzeko izapidetzeetan erabiltzen diren argibideak (onartuak eta onartzekoak), irizpideak, txantiloak eta izapidetze-prozedurak (fluxugramak) bildu dira, hainbat iturritatik jasota.



Prozedura horiek honako lau familia hauetan banatu dira:

- Obren familia.
- Aprobetxamenduen familia.
- Isurketen familia.
- Zehatzaileen familia.

Ikuskatzeari, espedienteen izapidetzeari eta Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren eta Plangintza eta Obren Zuzendaritzaren eta Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren arteko harremanari buruzko informazioa ere bildu da.

Eskuliburu bat sortu da, dokumentuak kodetu dira eta dokumentu horiek bateratzeko erduzko dokumentu bat sortu da.

5.1.3. Plan Hidrologikoaren araudia

Plangintza eta Obren Zuzendaritzarekin koordinatuta, plan hidrologikoaren araudian jaso beharreko zenbait ekarpen egin dira.

5.1.4. Lehorretik itsasora isurtzeari buruzko Dekretua

Jabari publiko hidraulikora isurtzeak badu garapen-araudi nahikoa emisio-mugei, aplikatu beharreko kanonei dagokienez eta abar, baina itsasoko eta lurreko jabari publikora isurtzeari dagokienez arau berri bat sortu behar da isuri horiei buruzko kontrola eta baimena erregularizatzeko.

2010ean berriz ere heldu zaio indarrean zegoen Dekretu-zirriborroari, eta zirriborro hori berraztertu eta aldatu da.

5.1.5 Hornidura eta saneamenduari buruzko esparru-erregelamendua

2010eko otsailean, lantalde tekniko bat eratzeko lanak hasi ziren, arau horren lehen zirriborro bat egiteko, hornidura- eta saneamendu-zerbitzuen ematea erregularizatzeko xedearekin, nola zerbitzuaren kalitatea ziurtatzearen ikuspegitik hala zerbitzu horiek behar bezala ematek eratorritako kostuak berreskuratzearen ikuspegitik.

URA dago lantalde horren buruan. AEASek koordinatuta eta honako partaide hauekin: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Amvisa, Entitat del Medi Ambient de l'Àrea Metropolitana de Barcelona, Aqualia eta Agbar.

2010ean lantaldea hiru aldiz bildu da, eta etorkizuneko esparru-erregelamenduaren oinarriak ezarri ditu.

5.1.6. Ikuskaritza eta Laborategia hobetzea

2010. urtean, ikuskatzaileentzako landako informazio-kudeaketarako tresna bat diseinatzeko lanak hasi dira.

Lehen fase batean, hautatuko gailuak zer ezaugarri bildu beharko lituzkeen zehaztu da, ikuskatzaileek datuak hartzeko erabili beharreko datu-baseen gaiak hautatu dira, eta PDAREN eta PCen artean datuak transferitzeko prozesua aztertu da.

Bestetik, ikuskatzeko eta laborategiko lanak optimizatzeko laguntza tekniko bat kontratatzeke lanak hasi dira.

Gainera, 2010eko otsailean barne-txosten bat egin zen URAREN laborategiaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoari buruz, eta laborategia indartzeko erabakia hartu zen, isuriaren % 100 laborategian aztertzeke helburua ezarri.



5.2. Baimen, emakida eta isurketen arloa

2010. urtean, bost koordinazio-bilera egin ditu, eta bilera horietan, funtsean, honako gai hauek aztertu dituzte:

- Izapidetze-irizpideak bateratzea.
- Espedienteen kudeatzailea ezartzea.
- Araudiei, proiektuei eta abarri buruzko informazioa.
- Beste erakunde batzuekiko (konfederazio hidrografikoak eta abar) koordinazioa.

5.2.1. Lan-baimenak

Lan-baimenak izapidetzearen helburu nagusia zera da, jabari publikoan edo horren ingurunean (polizia- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egikaritzeko baldintzak ezartzea, ur-masak honda daitezen saihestuz eta hobe daitezen ahaleginduz.

Arroen bulegoetako arduradunek baimenak izapidetzen dituzte, eta kontrola eta jarraipena egiten dute administrazio eta partikularrek jabari publiko hidraulikoan eta ibilgu-poliziako eta zortasuneko eremuetan egindako jardun eta obrei dagokienez.

2010. urtean **lanak baimentzeko 603 espediente** hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar), eta partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako **401 kontsultari** eman zaie erantzuna, alde zuzenetik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

Gainera, arroen bulegoek guztira **170 hirigintza-txosten** egin dituzte, beste administrazio bartzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzunez edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzunez.

2010. urtean, Mediterraneoako arroetako bulegoak **nabigazioko 176 erantzukizun-aitorpenen** jarraipena egin du.

Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako **69 salaketa** jaso dira guztira.

Indarreko legegintza-esparruaren barruan, **40 zehapen-espediente** irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik eta/edo jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

Zeregin horiei dagokienez esan beharra dago ez dela batere erraza bulego horietako langileek hirugarrenei arreta eta aholku emateko egindako lanak kuantifikatzea, baina argi dago oso ugariak izan direla.

Itsas-lehorreko zortasuna:

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak baimenak izapidetzen dituzte eta administrazio eta partikularrek jabariari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuari dagokienez egindako lana eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten dute. Gainera, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostena ematen dute.


2010. urtean **83 espediente** hasi dira, eta partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako **13 kontsultari** eman zaie erantzuna, alde zuzenetik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

Gainera, arroen bi bulegoek **156 txosten** eman dituzte.

Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako **47 salaketa** jaso dira guztira.

Gainera, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, **2 zehapen-espediente** irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik eta/edo itsas-lehorreko jabariari eta zerrenda elkartuei eragiteagatik.

LAN-BAIMENAK



Okupazio-kanona

Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko.

2010. urtean **132.783,70 €** bildu dira 2009ko ekitaldiko okupazio-kanon gisa.

5.3. Ur aprobetxamenduak

Ur-aprobetxamenduak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikotik ura hartzeko zer baldintza bete behar diren ezartzea, lehenetsun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihestuz.

Mendebaldeko Kantauriar eta Ekialdeko Arroen Bulegoek (erkidego barneko arroetan) ur-aprobetxamenduen espedienteak izapidetzen eta horien jarraipena eta kontrola egiten jarduten dute.

2010. urtean ur-aprobetxamenduen inguruko **55 espediente berri** hasi dira.


Aprobetxamenduak **erregularizatzeko 11 espediente hasi dira**, titulartasunaren eta ezaugarrien aldaketari eta iraungitzeari dagokienez.

Partikularrek, Administrazioek edo enpresek aldez aurretik adierazitako eremuetan egindako jardunei dagokienez egindako 26 kontsultari erantzuna eman zaie.

Bestetik, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, 3 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin da ur-aprobetxamenduei dagokienez.



UR-APROBETXAMENDUAK



5.3.1. Uraren kanona

EAEn uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek plangintza hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.

2010. urtean, 2009ko ekitaldiari dagokion uraren kanona likidatu da (181/2008 Dekretua 2009. urtean hasi zen indarrean).

Ekitaldi horren datu garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

- 262 erakunde hornitzaile identifikatu dira, eta horietatik 150 administrazio-batzarrak dira. Erakunde hornitzaile horien bitartez 1.802.738 € bildu dira.
- 659 erabiltzaile zuzen identifikatu dira, eta horietatik 251 erakunde hornitzaileak dira. Zuzeneko erabiltzaileen bitartez 1.028.049 € bildu dira.
- Guztira **2.830.787 €** bildu dira, 2009ko ekitaldiari lotuta.

Bildutako zenbatekoa ur-masen egoera hobetzeko jardunetara bideratu da, bereziki, ibai eta erreketako ertzak leheneratzeko jardunetara, eta zenbateko horren % 5 PNUD programarekin sinatutako hitzarmenari eskaini zaio, hau da, eskualde eta/edo herrialde behartsuenak trebatzeko, prestatzeko eta sentsibilizatzeko erabili da, Milurtekoaren Helburuetan ur-alorreko jardunei dagokienez jasotakoaren arabera.

2010. urtean informatika-tresnen diseinuan eta ezarpenean jardun dugu, erakunde hornitzaileei zein zuzeneko erabiltzaileei dokumentuak telematikoki bidaltzeko aukera emango duena. Aurten guztira 311.353,27 €-ko zenbatekoa inbertitu da tresna horiek garatzeko.

2010. urtean erakunde hornitzaileei guztira 144.900,47 € itzuli zitzaizkien kanona kobratu eta likidatzeagatiko konpentsazio gisa.

5.3.2. Ibilguak Mantentzeko Zerbitzua

2010ean, Ibilguak Mantentzeko Zerbitzuak 2 koordinazio-bilera egin ditu.

Gainera, 2011. urtean **Ibilguak Mantentzeko Zerbitzuaren** barruan egin beharreko jardunen urteko plangintza egin da. Jardun horiek honako talde hauetan sailkatu dira:

- Ingurumena leheneratzea.
- Landaketak.



- Espezie inbaditzaileak kentzea.
- Mantentzea.
- Ezustekoak.

Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoan **976.048,81 €**. inbertitu dira guztira. Diru gehiena Ibaizabalen arroan (% 67) eta Butroeren arroan (% 19) inbertitu da.

Mediterraneoko Arroen Bulegoan, berriz, **590.080,60 €** inbertitu dira. Zehazki, Zadorraren eta Ebroren arroetan inbertitu da gehien, % 43 eta % 26, hurrenez hurren.

Bestetik, Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoan **514.874,73 €** erabili dira. Oriaren arroan (% 42), Urumearen arroan (% 26) eta Debaren arroan (% 12) inbertitu da gehien.

	MENDEBALDEKO KANTAUARIAR ARROEN BULEGO	MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA	EKIALDEKO ARROEN BULEGOA
INGURUMENA LEHENERATZEA	249.130 € %26	91.747,41 € %16	4.679,88 € %1
LANDAKETAK	12.617,40 € %1	57.391,71 € %10	
ESPEZIE INBADITZAILEAK DEUSEZTATZEA	159.402,57 € %16		186.165,98 € %36
MANTENTZEA	547.818,84 € %56	329.006,46 € %56	141.517,40 € %27
<small>(Kantauriko Mendebaldeko Arroetako Bulegoan, landaketak mantentzea ere hartzen da aintzat)</small>			
EZUSTEKOAK		111.940,4 € %19	139.511,40 € %27
BESTE BATZUK	7.080,00 € %1		43.000,06 € %8
GUZTIRA	976.048,81 €	590.080,6 €	514.874,73 €

5.4. Isurketak

2010. urtean, **Isurketen Arloak** bost koordinazio-bilera egin ditu, eta bilera horietan, funtsean, honako gai hauek aztertu dituzte:

- Izapidetze-irizpideak bateratzea.
- Espedienteen kudeatzailea ezartzea.
- Laginak hartzeko protokoloak.
- SOS DEIAKen abisuen arretarako protokoloak.
- Araudiei, proiektuei eta abarri buruzko informazioa.
- Beste erakunde batzuekiko (konfederazio hidrografikoak, ingurumen-kalitatea eta abar) koordinazioa.

Isurketa-baimenak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikora egin beharreko isurketak zer baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta eraginik txikiena eragiteko.

Ibilgu publikora isurtzen duten edo lurrera iragazten diren arazketa-sistemak ikuskatzen jarraitu dute Uraren Euskal Agentziaren arroen bulegoek.

2010ean isurketak baimentzeko edo berraztertzeko (indarraldia iraungitzean) 236 eskaera berri izapidetu dira, eta joan den urtean hasitako baimen-ebazpenik gabeko espediente ugari izapidetzen ere jarraitu dute.

Halaber, partikularrek zein Administrazio eta enpresek eskatutako 38 txosten-espeditente izapidetu dira.




Hainbatek (partikularrak, udalak, administrazio-batzarrak, bulego honi atxikitako ibai-ikuskatzaileak eta abar) aurkeztutako 78 salaketa-espediente izapidetu dira, askotan legezatzeko errekerimendu espezifikoak behar izan dituztenak.

Arroen bulegoek, indarreko kudeaketa-aginduaren barnean, 30 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin dute, isurketen arloko beren eskumen-eremuaren barnean indarreko legeria ez betetzearen ondorioz.

Gutxi gorabehera 1954 isurketa-baimenen jarraipena egin da, hondakin-uren araztegi eta isurketa-puntu nagusien ustiaketa-txostenak aztertuz, arazketa-sistemak gaizki ibiliz gero jabari publiko hidraulikorako kaltegarri gerta daitezkeela aintzat hartuta.

Bestetik, ingurumena oro har babesteko helburuarekin INGURUMEN BAIMEN INTEGRATUAREN kontzeptu berria sartu zuen 16/2002 Legea aplikatuz, arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuak izapidetzean, nola hondakin-uren isuriei dagozkien txosten loteslearen errekerimendu eta proposamenetan hala ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.

ISURKETAK



Gainera, Isurketen Arloak elkarlanean jardun du Uraren Euskal Agentziaren Lanen arloarekin, indarrean dauden zuzentaruak betetzeko kolektoreetan eta hondakin-uren araztegietan egikaritu beharreko obrei dagokienez, eta, horretarako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin eta ur-partzuergo, udal eta administrazio-batzar guztiekin harremanetan egon da.

Gainera, Bilboko portuak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta URA agentziak hitzarmen bat sinatu dute portu-eremuan isuriak biltzeko alternatibak aztertzeko.

5.4.1. Isurketak kontrolatzeko kanona

Jabari publiko hidraulikora isurketak egiteari kanon horren zerga ezarri zaio, arro hidrografiko bakoitzaren ingurune hartzailea aztertu, kontrolatu, babestu eta hobetzeko.



Gaur egun Uraren Euskal Agentziak Euskadiko barne-arroen kanonak baino ez ditu likidatzen, eta 2010ean guztira 621.160,65 € bildu dira, 2009ko ekitaldiari dagozkionak.

5.5. Ikuskatzeko arloa eta laborategia

5.5.1. Ikuskatzea

Urak Ikuskatzeko Arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: URA agentziako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioen berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Ikuskatze-arloak 28 ur-ikuskatzaile ditu: 12 Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoan, 9 Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoan eta 7 Mediterraneoako Arroen Bulegoan.

2009. eta 2010. urteetan, ikuskatze-zerbitzuak honako jardun hauek gauzatu ditu, besteak beste: hiru lurralde historikoetan abiadura handiko trenbidea eraikitze lanak ikuskatzea, Bilboko saihesbidea (Super sur) eraikitze obrak ikuskatzea, Arabako bailaretako lur ureztatuak, Aritzetatik Errenteriara bitarte A-8 zabaltzeko lanak, EAE osoan ibilguak mantendu eta leheneratzeko lanak, eta abar.

Nabarmentzekoa da, halaber, SOS Deiak erakundea abisuen arretaren arloan egiten ari den lana, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dago kienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, gaueko eta eguneko edozein ordutan, lanegun edo jaiegunetan eskaera guztiei erantzunez. Gutxi gora behera horrelako 500 abisuri eskaini diete arreta.

Uren ikuskatzaileek beren jardun-eremuko isurketa-puntu guztiak bisitatu dituzte, isuri horiek ibilgailu hartzailean eragindako inpaktua une oro ikuskatu eta egiaztatzeko.

Bestetik, isuritako efluenteen laginketa egin da, bulegoetako langileek ikuskatzeko egindako bisitaldietan efluente horiek ohiz kanpoko itxura zutela edo ingurune hartzailearentzat nabarmen kaltegarriak zirela atzeman duten kasuetan.

5.5.2 Laborategia

2010. urtean, URA agentziak Lasarten duen laborategian 470 lagin aztertu dira guztira, eta horietatik 399 Ekialdeko Kantauriko Arroei dagozkie, horietatik 348 laginketa programatuetatik ateratakoak eta 53 ohiz kanpoko isurien ondorio direnak. Mendebaldeko Kantauriko Arroen eremutik, berriz, 71 lagin aztertu dira, laginketa programatuei dagozkienak.


Besteak beste, honako parametro hauek aztertu ditugu: PH, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, DBO5, nitrogeno amoniakala, nitritoak, nitratoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal osorako laginen digestioa, metal astunak, olio eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, fosforoa guztira, fluoruroak, hidrokarburoak, guztizkoak, alkalinitasuna, gogortasuna guztira, kaltzio-gogortasuna eta uhertasuna.

Mediterraneoko Arroen Bulegoak administrazio hidraulikoaren erakunde laguntzaile baten zerbitzuak kontratatu ditu, bulego horretako langileek hondakin-uretatik hartutako laginen karakterizazio analitikoa egiteko.



Plangintza eta lanak

06





6.1. Plangintza hidrologikoa

6.1.1. EAEn plan hidrologikoak egitea

2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentzarauak urak kudeatzeko printzipio berriak ekarri ditu, ur-sistemen egoera ona lortzea eta eskaerei behar bezalako erantzuna ematea uztartuz, uraren arazoizko kudeaketa eraginkorra eginez eta plan hidrologiko berriak aplikazio-ardatz gisa hartuz. Arro bakoitzerako plan bat egin behar da, aipatutako helburuak betetzeko jardun guztiak bilduta.

Uren Esparru Zuzentzarauaren eta Euskadiko Uren Legearen ildo nagusiei jarraiki, Uraren Euskal Agentziak **Euskadiko Barne Arroen Plan Hidrologikoaren proiektua** egin du, arro horien Uren arloko eskumena gure autonomia-erkidegoari soilik dagokiola aintzat hartuta.

2006an hasi ziren plan hori egiteko lanak. Lehenik eta behin, fase-kronograma zehaztu zen eta kontsulta eta parte-hartze publikorako formulak ezarri ziren, funtsezko bi etapatan egituratuta:

- 1. Uren kudeaketa-alorreko garrantzizko gaien eskema.** Dokumentu honek etorkizuneko Plan Hidrologikoaren ildo nagusiak zehazten ditu, eta, besteak beste, planaren helburuak, arazo nagusien identifikazioa eta arazo horiek konpontzeko estrategia edo jardunetarako ildo nagusiak biltzen ditu. Hasiera batean egindako dokumentua gizartera zabaldu zen parte-hartze irekiko prozedura baten bitartez, eta, ildo horretan, 16 eztabaida-tailer jarri ziren abian, baita sei hilabeteko kontsulta-prozesu arautua ere. Prozesu horren ostean, Uraren Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluak dokumentua onartu zuen 2009ko azaroaren 18an, eta, jarraian, Euskadiko Uraren Kontseiluak aldeko txostena eman zuen 2010eko maiatzaren 19an.
- 2. Plan Hidrologikoaren proiektua.** Dokumentu hau 2009. eta 2010. urteetan egin da, aurreko etapan ezarritako ildo nagusietan oinarrituta. Garrantzi handiko dokumentua da, honako gai hauek biltzen dituena:
 - Planaren aplikazio-eremuko ur-masen ingurune-helburuak zehaztea.
 - Ur-masen egoeraren karakterizazioa eta ingurumen-helburuak betetzen ez dituzten ur-masen identifikazioa.
 - Beste arazo batzuen (eskariak gogobetetzea eta muturreko fenomenoaren inpaktua adibidez) karakterizazioa.
 - Eremu Babestuen Erregistroa ezartzea.
 - Neurri-programa, une honetan egoera txarrean dauden ur-masek egoera ona berreskura dezaten lortzeko, egoera onean dauden masek egoera horri eusteko, eta hornidura-es-



kaerak gogobetetzearekin eta muturreko fenomenoak prebenitzearekin zerikusia duten arazoak konpontzeko, uholdeei dagokienez bereziki.

- Araudia.

Plan hidrológicoak adostasun handia lortu du erakunde guztien artean, eta azpimarratzekoa da Foru Aldundiek eta partzuergo eta mankomunitateek laguntza handia eskaini dutela, baita Gobernu Zentraleko erakundeek ere, hala nola Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Kostaldearen Mugapeak, biak ere Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren mendekoak.

Dokumentu horren garrantziaren adierazgarri dugu planaren lehen etaparako, 2015erako alegia, aurreikusitako inbertsio kopurua, guztira 1.500 milioi euro biltzen dituen inplikaturako administrazio guztien artean. Inbertsio horietako gehienek hondakin-uren arazketa eta saneamendua (% 61), hornidura-sistemen hobekuntza (% 18) eta uholdeen prebentzioa (% 10) dute jomugan.

Barne Arroetako Plan Hidrológicoak 2010eko abenduaren 20an hasi du sei hilabeteko jendaurreko kontsultako nahitaezko aldia. Aldi berean, parte-hartze aktiboko prozesu zabala jarri da abian, eta aurreikusita dago 25 tailer baino gehiago antolatzea, mota guztietako 150 agente baino gehiagoren parte-hartzearekin.

2011ko ekainean itxiko da jendaurreko kontsultako prozesua. Gero izapidetzearekin aurrera jarraituko dute behin betiko onarpena gauzatu arte, ingurumen-inpaktuko nahitaezko baterako ebaluazioa barne. 2012an plan hidrológicoa behin betiko onartzea da helburua.

Barne Arroetako Plan Hidrológicoan erabilitako metodologiari jarraiki, Uraren Euskal Agentziak prestatu egin ditu **Kantauriko erkidego arteko arroen eta Ebroren mugapearen plan hidrológicoak egiteko EAEk ekarritako dokumentuak**, jarraian Kantauriko eta Ebroren Konfederazio Hidrografikoetara bidaltzeko, hurrenez hurren.

6.1.2. Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak

2009an eta 2010ean *ur-masen egoeraren jarraipenerako sareak* ustiatzen jarraitu dugu. Sare horiek ur-masa mota guztiak biltzen dituzte (lurpekoak, ibaiak, hezeguneak, trantsizio-urak eta kostaldekoak), eta ur horien egoerari eta bilakaerari buruzko informazio zehatza lortzea dute helburutzat, aurreikusitako ingurumen-helburuak lortzeko neurri-programa egokiak abian jartzeko helburuarekin. Azken batean, plangintza hidrológicoa lantzeko oinarri garrantzitsuetako bat osatzen dute, eta gainera, ingurumen-helburuak (hala nola adierazle fisikokimiko eta biologikoe-kin, emari ekologikoe-kin edo erriberako basoko kalitate-adierazleekin zerikusia dutenak, besteak beste) zehazteko dira lagungarri. Sare horien ezaugarriak Uraren Esparru Zuzentzarauaren errekerimenduetara egokituta daude.

Gainera, ur-masen egoeraren bilakaera ezagutzeak aukera eman du OSPAR Hitzarmenari buruzko urteko txostenak egiteko, Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programaren ingurumen-adierazleei laguntzeko txostenak egiteko, eta estatuan edo Europar informazioa bidaltzeko beste betebeharrak batzuk betetzeko.

Halaber, ingurumen-datuaren bilketa horri esker, Uraren Euskal Agentziak zuzenean parte hartu ahal izan du Europako Batzordeak Uraren Esparru Zuzentzarauan (kostaldeko uretan bereziki) sustatutako interkalibrazio-prozesu europarrean, eta gainera egoera, erreferentziatzeko baldintzak eta ingurumen-helburuak ebaluatzeko sistemak ekartzeko aukera izan du Uraren Esparru Zuzentzarauan ezarritako zenbait egoera-adierazletarako.



Jarraipen-sare orokor horien esparruan zenbait azterlan espezifiko gauzatu ditugu arlo jakin batzuetan, Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzarekin normalean, baina baita beste zenbait administraziorekin ere, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Ihobe eta abar. Hala, zenbait azterlan zehatz egin ditugu egoera txarrean zeuden lurpeko ur-masetan (Gernika, Miranda, Gasteiz) eta arazo zehatzak dituzten beste eremu batzuetan (Zugaz-tietako aintzira, Oiola urtegia eta abar).

Jarraipen espezifiko horien emaitzen harira, Gasteizko unitate hidrologikoa (mendebaldeko sektorea-Foronda I. eta II.) nitrato-kutsaduraren eraginpeko eremu gisa sailkatu da, Inguru-men, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2009ko azaroaren 18ko Aginduari jarraiki. Bestetik, bainatzeko eremuen profilak zehaztu dira, bainatzeko uren kalitatea kudeatzeari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera, eta eremu sentikorrek berraztertze aukera planteatu da, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikatzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko Legegintzako 11/1995 Errege Dekretua garatzen duen martxoaren 15eko 509/1996 Errege Dekretuan adierazitakoaren arabera.

Gainera, aurrera jarraitu dugu uraren *alderdi ekonomikoekin*, kostu-berreskuratzeekin, Plan Hidrologikoaren neurri-programari lotutako eraginkortasun-kostuarekin, eta oso aldatutako ur-masak behin betiko izendatzeko justifikazio sozioekonomikoarekin zerikusia duten azterlanak egiten.

6.1.3. Informazio-sistemak

2009an, zerbitzu estandarretan oinarritutako informazio geografikoko sistemak ezartzen hasi gara, erabiltzaile maila guztietarako (herritarrak, teknikariak eta abar) tresnak erantsita. 2010ean, URA agentziaren datu espazialen azpiegituraren zabalkundea osatu da. Hainbat datuk, tresnak eta zerbitzuk osatzen dute azpiegitura hori, Euskal Autonomia Erkidegoaren baliabide hidrikoari dagokion informazio geografikoaren kontsumoa eta sarbidea errazteko helburuarekin.

Informazio geografikoaren kantitatearen eta kalitatearen gorakada handiaren eta informazio hori kudeatzeko tresna egokiak edukitzeko premiaren haritik etorri da datu espazialen azpiegitura sortzeko ekimena. Informazio hori argitaratu beharra zegoen, beste hainbat administraziok, enpresak eta herritarrek ere hura kontsumitzeko aukera izan zezaten, eta premia horrek ere zeresana izan du datu espazialen azpiegitura horren sorreran.

URA agentziaren datu espazialen azpiegiturak informazio geografikoari buruzko web ikustaille bat dauka, edozein erabiltzailerik URA agentziak sortutako informazio geografikoa eskuratzeko aukera ematen diona. Gainera, Agentziako teknikarien lana errazteko, AUTOCAD eta GvSig tresna korporatiboan gainean jarduteko garapenak gauzatu dira. Hori guztia datu-base bakar baten gainean oinarrituta. Gainera, zenbait OGC zerbitzu zabaldu dira.

Bestetik, 2010ean Euskadiko uren egoerari buruzko informazio-sistema jarri da abian, gure autonomia-erkidegoko ur-masen egoerari buruzko informazioa sistematizatzeko, eta teknikarien eta oro har jendearen eskura datu horiek kontsultatzeko tresna bat jartzeko.



6.2. Laguntza lineak eta lankidetzak hitzarmenak

Aurreko urteetan jada ezarritako laguntza-lineari jarraitutasuna eman genion 2009an eta 2010ean. Horrela, edateko ura banatzeko sareak hobetzeko diru-laguntzak arautzen dituen Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2009ko maiatzaren 4ko Ebazpen bidez 47 erakunderi zegozkien 100 proiektu diruz lagundu genituen guztira. Bestalde, uraren gaian ingurumenaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko jardueretarako diru-laguntzen deialdia eta urarekin eta ur-sistemekin loturiko berrikuntza-, ikerketa- eta garapen-programa eta proiektuetarako diru-laguntzak publiko egiten dituen Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2010eko otsailaren 25eko Ebazpen bidez 31 erakunderi dagozkien 50 lan identifikatu ditugu guztira subentzionagarritzat.

Bestalde, ur-ekosistemak babestu edota hobetzearekin loturiko helburuak dauzkaten hainbat erakunderekin sinatu ditugu lankidetzak hitzarmenak:

Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI-Tecnalia Fundazioaren arteko lankidetzak hitzarmena, besteak beste, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei loturiko ekosistemei buruzko ezagutza-maila hobetzeko, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei loturiko ekosistemen narriadura prebenitu eta haien egoera hobetzeko eta trantsizioko eta kostaldeko ur-masei loturiko kostaldearen kudeaketa hobetzeko ekintzak egiteko.

Uraren Euskal Agentziaren eta IHOBE, SA ingurumen-jarduketarako sozietate publikoaren arteko lankidetzak akordioa Oiola (Bizkaia) urtegiaren inguruan poluzioguneak lokalizatzeari eta haien ezaugarriak biltzeari buruzko jardunak egikaritzeko.

URaren, Bilboko Portuaren eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren arteko lankidetzak hitzarmena Bilboko portuko esparruan isuriak kudeatzeko alternatiben azterlana egiteko.

6.2.1. Araba 2009-2010 hitzarmenak

DATA	HITZARMENA	EGIKARITZAPENA
09/02/16	Lankidetzak hitzarmena Manzanosko Kontseiluarekin	Manzanosko Saneamendu Proiektuaren obren egikaritzapena
09/04/22	06/12/26 lankidetzak hitzarmena zabaltzea, Arabako Foru Aldundiarekin eta Sobrongo Partzuergoarekin	Sobrongo sistemarako hornidura-proiektuaren lehenengo proiektu banandua kontratu eta egikaritzea, Sobron-Urtegia tartearen zundaketa
09/04/24	Lankidetzak hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin eta Uribarri Gaubeako Kontseiluarekin	Uribarri Gaubean A-2622 errepidea egokitzeko proiektua egikaritzea eta finantzatzea
09/04/29	Lankidetzak hitzarmena Arabako Errioxako Ur Partzuergoarekin	Oiongo inguruneke Saneamendu eta Arazketa Proiektuaren obrak egikaritzea
09/04/30	Lankidetzak hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin	Samaniegoko, Uribarriko Mañuetako eta Edarko herrietako isurien kolektore eta hodi biltzaile orokorraren proiektuaren obra egikaritzea
09/12/21	Lankidetzak hitzarmena AMVISA Aguas Municipales de Vitoria, SArekin	Hainbat hornidura-obren proiektuen eta egikaritzapenen idazkuntza: Albina-Araka, lohien tratamendua ETAP Araka; Subijana-Langraitz-Araka hodia. Subijana-Langraitz akuiferoan zundaketak egiteko ekipamendua



23/12/09	Lankidetza-hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin Euskara, Kultura eta Kiroletako foru-diputatua, eta Fundación Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana Fundazioaren Patronatuaren presidentea	Añanako Gatz Haranaren goialdeko iturburu eta larrainak leheneratzeko obrak egikaritzea. 2009ko, 2010eko eta 2011ko kanpainak
11/03/10	Lankidetza-hitzarmena SPRILUR SArekin	Defentsa hidraulikoko obrak Zaya ibaiaren ezkeraldeko uholdeen aurka

6.2.2. Bizkaia 2009-2010 hitzarmenak

DATA	HITZARMENA	EKINTZAK
09/04/29	Lankidetza-hitzarmena Euskal Trenbide Sarea/ Red Ferroviaria Vasca Ente Publikoarekin	Nerbioi ibaiaren gaineko trenbide-zubi berria ordezte 4/901 kp-an, Bilbao-Donostia linea, Etxebarrin
09/04/30	Lankidetza-hitzarmena Bakioko Udalarekin	Bakioko Uxina erreka errekaren egokitzapen hidraulikoaren eta erreka leheneratzeko proiektuaren obrak egikaritzeko
09/12/21	Lankidetza-hitzarmena Bilboko Ur Partzuergoarekin	Laguntza ekonomikoa hainbat obra egikaritzeko
10/11/22	Lankidetza-hitzarmena Foruko Udalarekin	Foruko Upeta erreka egokitzeko proiektua
10/12/22	Lankidetza-hitzarmena Igorreko Udalarekin	Zubi eta bide bat egikaritzeko proiektua Garakoi auzorako sarbide berrirako
10/12/27	Lankidetza-hitzarmena Bizkaiko Ur Partzuergoarekin eta Bilboko Portu Agintaritzarekin.	Bilboko portuaren esparruan isuriak kudeatzeko alternatiben azterlana egitea, betiere Santurtziko eta Zierbenako udalerrietan kokaturiko instalazioei dagokienez

6.2.3. Gipuzkoa 2009-2010 hitzarmenak

DATA	HITZARMENA	EKINTZAK
09/02/6	Lankidetza-hitzarmena Zarautzeko Udalarekin	Errotaberri sektorearen urbanizazio-proiektua, uholdeen aurkako defentsa eta ibai-ertzak leheneratzea Zarauzko Errotaberri industria-sektoreko ibilbide osoan
01/2009	Deba ibaia leheneratzeko eta balioan jartzeko programa integrala garatzeko hitzarmena.	Debarrenaren Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoan biltzen diren proiektuak. Deba ibaia modu integratu eta integratzailean planifikatu eta kudeatzea
09/12/	Lankidetza-hitzarmena Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearekin.	Zubimusuren arroaren goialdearen saneamendu-sistemaren kolektore orokorrak berritzea
16/11/10	Lankidetza-hitzarmena Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin	Oria ibaiaren erdialdeko hodi biltzailearen proiektua aldatzea, eta adar osagarriak, 5. tarte: Tolosa-Irura



10/12/23	Lankidetzeta-hitzarmena Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin	Ibai-Eder ibaiaren uholdeen aurkako defentsa-proiektua eta Urrestillako saneamendua
----------	---	--

6.2.4. 2009-2010 aldiko hitzarmen orokorrak

DATA	HITZARMENA	EKINTZAK
09/01/02	Lankidetzeta-hitzarmena Eusko Informatika Sozietatearekin.	Uraren Kanonaren kudeaketa-proiektuaren Jaurlaritzaren EJIE bulego teknikoko zerbitzuak ematea
09/01/08	Lankidetzeta-hitzarmena IHOBE, SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin.	Oiolako urtegiaren inguruneke poluzioguneen lokalizazioari buruzko jardunak
09/02/02	Lankidetzeta-hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren EJIE Informatika Sozietatearekin.	URAREN informatika-sistemen eta komunikazioen diseinurako, ezarpenerako eta mantentzerako laguntza tekniko generikoko zerbitzuak ematea
09/04/01	Lankidetzeta-hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren EJIE Informatika Sozietatearekin.	URAREN espedienteen kudeaketa-proiektuetarako bulego teknikoko zerbitzua ematea
09/09/14	Lankidetzeta-hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren EJIE Informatika Sozietatearekin.	URAREN GIS ekimena definitu, garatu eta ezartzeko proiekturako bulego teknikoa sortu eta kudeatzea
10/01/08	2008.11.03ko lankidetzeta-hitzarmena luzatzea Eusko Jaurlaritzaren Informatika Sozietatearekin	Informatika-zerbitzuak eta komunikazioak aurkeztea Uraren Euskal Agentziaren informatika-sistemak diseinatu eta ezartzeko, EJIE sozietatearen eskutik
10/07/02	Lankidetzeta-hitzarmena IHOBE, SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin	Lurzoru kutsatu eta urekin loturiko jardunak batera egitea, baita beste hainbat jardun ere
10/09/27	Lankidetzeta-hitzarmena Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE)	EAEko lurpeko uren jaarraipen-sareak mantentzea eta ustiatzea eta beste hainbat jardun osagarri
10/09/29	Lankidetzeta-hitzarmena Zaaragozako Unibertsitatearekin	Laguntza-lineak ezartzea, ibai-kudeaketako eta uren iraunkortasun eta kudeaketa integratuko Masterrarekin garaturiko alderdietan

6.3. Ebaluazioa

Ebaluazioaren arloan hainbat dokumentu eta proiekturen azterketa eta txostena egiteko lanarekin jarraitu dugu Administrazio Hidrauliko honek aplikatu dezakeen arau multzora egokitzen dela egiaztatzeko. Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin lankidetzeta estuan garatzen da lan hori eta honako izapide hauek ditu aztergai:

Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidei buruzko txostena ematea.

Hirigintza-antolamenduko tresnei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea



hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua I letrari jarraiki (*Hasierako onarpena baino lehen, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan berezietan buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gora-behera*).

Antolamendu estrukturalako planei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua k) letrari jarraiki (*Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan berezietan buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioa izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera*).

Txostena dagokion ingurumen-organoari ematea Ingurumen Inpaktuko Azterlanen (IIA) edo Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Bateratuko Azterlanen (IIEE) izapidetzearen esparruan.

Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako erantzuna, batez ere hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola ingurumena, legeak, uholde-arriskuaren kudeaketa eta abar.

Bestalde, ebaluazio-arlo horretatik egikaritzen den beste lanetako bat obra-arloari laguntza ematea da Uraren Euskal Agentziaren obren Ingurumen Inpaktuko Ebaluazioko prozeduren jarraipenean, baita lan horien beste zenbait ingurumen-alderdiri dagokienez ere.

Horrela, ebaluazio-arloaren 2009-2010 aldiko jardura honela laburbil daiteke aztertutako espedienteen zifrari dagokionez:

Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidekin loturiko 430 espediente, batez ere aprobetxamenduen administrazio-erregularizazioa, plangintza hidrobiologiakoarekiko onespentxostenak, eta abar.

Hirigintza-planeamenduen berrikuspenarekin loturiko 266 espediente.

inpaktu-ebaluazioko izapideekin loturiko 200 espediente.

Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako 120 erantzun, hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola ingurumena, legeak, uholdeetako arriskuak eta abar.

8 obra propioen Ingurumen Inpaktuko Ebaluazioko prozeduren jarraipena.

- Hornidurako Eraikuntza Proiektua Baias Garaian
- Tumecillo ibaia bideratzeko proiektua, Osman, Gaubeako udalerrian, Araban
- Artziniegako saneamendu-sarearen kolektoreen eraikuntza-proiektua eguneratzea
- Batan eta Zapardiel ibaietako uholdeen aurkako defentsa-proiektua, Gasteizko udalerrian
- Urbina Ezako ur-etorrien neurketa-tokia eraikitze proiektua
- Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren bideratzearen proiektu eguneratua. Basauri-Galdakao tartea, I. fasea
- Etxezuri-Larrainazubi eta Salsidu tartean hobekuntza hidraulikoko proiektua, Getxoko Gobelak ibaiaren ingurumen-arloko egokitzapen hidraulikoaren aurrerapen-lana
- Bideratze-proiektua eta zubi berria Lizartzan



6.4. Uholde arriskua

Uraren Euskal Agentziak 2009. eta 2010. urteetan buruturiko lanak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko uholde-arriskuaren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua eta Estatuko antolamendu juridikoan txertatzen duen 903/2010 Errege Dekretua betetzearekin lotuta daude, eta honako zeregin hauek biltzen dituzte:

1. Uholde-arriskuaren alde aurreko ebaluazioa (**UAAE**) eta uholdea izateko arrisku potentzial esanguratsua duten eremuen identifikazioa (**UAPEEak**), 2011ko abenduaren 22ko mugaegunarekin.
2. **Arriskuen eta uholde-arriskuaren mapak**, 2013ko abenduaren 22ko mugaegunarekin.
3. **Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak**: plan horiek lantzeko ezarritako epea 2015eko abenduaren 22a izango da, eta egun horretatik aurrera Plangintza Hidrologikoan bildu beharko dira.

Honako zeregin hauek burutu dira 2009. eta 2010. urteetan:

- Akordio bat ezarri da uholde-arriskua kudeatzeko Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailen artean (2010eko urria), eta bertan ekintza-esparru bateratua ezartzen da 2007/60/EE Zuzentarauarekin loturiko etorkizuneko lanetarako.
- Uholde Arriskuaren Aldez aurreko Ebaluazioa (UAAE): aurrera egin da uholde-arrisku esanguratsupean dauden EAeko eremuen identifikazioan. Horrela, datu historikoak bildu dira eta uholde-arriskuari buruzko egungo informazioa lurzoruen erabilerari buruzkoarekin gurutzatu da. Uholde Arriskuaren Aldez aurreko Ebaluazioaren dokumentua 2011ko abendua baino lehen behin betiko onartzea dago aurreikusita, eta uholde-arrisku esanguratsupeko esparruak definitzea espero da horren emaitza gisa.
- Arriskuen mapak: EAeko ibilguen karakterizazio batimetrikoko kontratuaren administrazio-izapidea ia amaituta dago.
- Uholdeetako **Erabakiak hartzeko Laguntza Sistema** (ELS) bat ezartzeko lanen aurrerapena
I. Euskadiko egungo Sare Hidrometeorologikoa osatzeko helburua duten ur-etorriaren neurketa-tokiak eraikitze hainbat proiektu idatzi ditugu eta apurka-apurka egikaritzeko ditugu datozen urteetan Ur-etorriaren neurketa-toki bat Eturan egikaritzeko administrazio-izapidea hasi dugu, Ullibarriko urtegiaren isatsean.
II. Euskadiko Informazio Hidrologikoaren eta Uholdeen Iragarpen Goiztiarreko Sistemaren arkitektura orokorra definitu dugu: dokumentu horiek esparru orokor gisa baliagarri izango dira 2012. amaitzea aurreikusita dagoen Erabakiak hartzeko Laguntza Sistemaren ezarpen-lanetarako.
Hainbat azterlan hidrauliko sustatu eta aztertu ditugu udalerrietan.

6.5 Lanak

Aldi honetan hainbat jardun idatzi eta egikaritu ditugu plangintza hidrologikoan aurreikusitako zenbait helburu lortzeko: ur-masen egoera ona eta babes egokia, ur-eskariei erantzutea, uholdeen aurkako defentsa, eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Obra horiek egokituta hainbat gauza lortzen dira, hala nola kudeaketa integratua eta baliabide hidrikoen epe luzerako babesa, uren egoeraren narriaduraren prebentzioa, ur-ingurunearen



eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza eta kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzeaz gain.

Uraren Euskal Agentziak 2009. eta 2010. urteetan garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- Zuiako Hondakin Uren Araztegiaren egikaritzapena hasi dugu, baita dagokion kolektore-sarearen kontratazioa ere.
- Zuiako Hondakin Uren Araztegiaren egikaritzapena hasi dugu, baita dagokion kolektore-sarearen kontratazioa ere.
- Butron ibaiaren bideratzea egikaritu dugu Mungian, 4+450 KParen eta 5+650 KParen arteko tartean.
- Getxoko Gobela ibaiaren egokitzapen hidraulikoaren eta haren ingurumen-leheneratzearen proiektuaren jardun aurreratuak tarteka hasi ditugu.
- Etxebarriko (Bizkaia) Euskotrenen zubia ordezteko lanak hasi ditugu.
- Nerbio-Ibaizabal ibaiaren (Basauri-Galdakao tartea) bideratze-proiektuaren egikaritzapenarekin hasi gara. I. Fasea.
- Errekalde eta Errotaburu arteko Añorga errearen (Donostia) uholdeen aurkako eta saneamenduko proiektuaren egikaritzapenean aurrera egin dugu.
- Oria eta Asteasu ibaien uholdeen aurkako defentsa-obra egikaritu dugu, Villabona-Zizurkilan, 1. fasea.
- Uholdeen aurkako defentsa-obrak egin ditugu Arantzazu ibaian, Oñatiko Zubillaga auzoan.
- Hainbat erakundek lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dituzte zenbait obra egikaritzeko:
- 2008ko urriaren 23an hitzarmen bat sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak eta Uraren Euskal Agentziak Esparru Akordioan bilduriko obrak betetzeko alde aurretik konprometituriko diru-kopuruak zabaltzeko. Akordio horretan aurreikusitako ekintzen aurreikusitako garapenarekin jarraitu dugu aldi horretan.
- Hitzarmena LANVI ureztatzaile-elkartarekin Lanciegoko aldean lur ureztatuen hobekuntza-obrak egikaritzeko.
- Hitzarmenak Gasteizko Udalarekin eta Amvisarekin.
- 2009. urtearen aurretik Bizkaiko Foru Aldundiarekin zein Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoarekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko lanak gainbegiratu, amaitu eta ziurtatu ditugu.
- Aurrera jarraitu dute Gipuzkoa Foru Aldundiarekin izenpeturiko Esparru Akordioan bilduriko jardunek
- Hitzarmenak Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin eta Añarbeko Urekin

Arestian azaldutakoaz gain, garrantzi txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu garatu dira lurralde osoan.

Nazioarteko akordioak lankidetzara (ODM) eta Nazioarteko presentzia

07





7.1. 2009ko azaroaren 26an UNICEFek eta URak sinaturiko lankidetzak hitzarmena

URA Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Iñaki Urrizalkik eta UNICEF-Euskadiko Batzordeko jarduneko presidente Carlos Epalzak 2009ko azaroaren 26an sinatu zuten Miñaoko (Gasteiz) URaren egoitzan lankidetzak-hitzarmena, eta hezkuntza-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak egitea zuen helburu, gizakiak ura izateko duen eskubideari dagokionez, eta biziraupenarekiko eta haurren garapenarekiko ere bai.

“Nigerreko Tantak” kanpaina zabalduz eta garatuz beteko da aurreko helburua. Gizakiak ura lortzeko eta biziraupenerako eta haurren garapenerako duen eskubidea zabaldu eta landu nahi du kanpaina horrek, EAEko ikastetxeetan parte hartzeko eta mobilizatzeko proposamenak baliatuz horretarako.

7.2. Protokoloa NBGPrekin

NBGP Nazio Batuen Garapenerako Programaren Ingurumen eta Energia Taldeko zuzendari Veeerle Vanddweerd eta URA Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak 2009ko apirilean sinatu zuten lankidetzak-hitzarmen bat, eta horren arabera aurreikusita dago uraren kanon ekologikoaren % 5aren diru-kopuru baliokide bat (Euskadin bildutakoari gagozkiola) Saharaz azpiko Afrikako hornidura eta saneamendurekin loturiko lankidetzak-proiektuetara bideratzea.

Jendeari ura eta saneamendua emateko helburua betetzeari dagokionez eskualde atzeratuena da Saharaz azpiko Afrika. Gaur egun, hiru segundoan behin hiltzen da haur bat munduan ur- eta saneamendu-faltarekin loturiko gaixotasunen eraginez.

7.3. Milurtekoaren garapenaren helburuak lortzeko ekarpena

URA Uraren Euskal Agentziak, bere estatutuetan agindutakoari jarraiki, laguntza ematen du Milurtekoaren Garapenaren helburuak lortzeko uraren eta saneamenduen arloan, hau da, edateko ura modu iraunkorrean eta saneamenduko oinarriko zerbitzuak lortzeko biderik ez duten pertsonen ehunekoa erdira gutxitzea 2015. urterako. Uraren Euskal Agentziak nazioarteko ekimenetan parte hartzen du Milurtekoaren Helburuak lortzeko uren arloan NBGPrekin sinaturiko protokoloaren bidez, informazioak, esperientziak, gaikuntza-ikastaroak eta abar trukatzeko ezarritakoaren bidez.



7.4. UNESCOren baliabide hidrikoak ebaluatzeko munduko programa

URA Uraren Euskal Agentziak Baliabide Hidrikoak Ebaluatzeko Munduko Programan (WWAP) laguntzen du; 2000. urtean sortu zuten, eta NBERen (Ura) bandera-programa da. UNESCOn bilduta dagoen WWAPek ur gezarekin loturiko gaiak gainbegiratzeko gomendioak emateko, kasuen azterlanak garatzeko, estatu osoan ebaluazio-gaitasuna indartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuari buruz informazioa emateko. Programaren produktu nagusia, Munduko Baliabide Hidrikoen Garapenari buruzko Txostena (WWDR), lan zabal eta aldizkakoa da, planetako ur gaziaren baliabideen egoerari buruzko ikuspegi fidagarria eskaintzen duena. Aipatzekoa da 2009. urteko Munduko Baliabide Hidrikoen Garapenari buruzko Nazio Batuen Hirugarren Txostenaren aztertzeko kasuen atalean Euskadiri dagokion bat bilduta dagoela, munduko beste area batzuetako aztertzeko beste zenbait kasurekin batera.

7.5. URAREN parte-hartzea eskualdeetako gobernuetan europar eta mundu osoan (encore eta nrg4sd)



ENCORE

URAK aktiboki parte hartu du 2009-2010 aldian, uren arloari dagokionez, Europa eta mundu osoan eskualde-gobernuen sareetan Garapen Iraunkorreko Eskualdeetako Gobernuen Sarearen bidez. **ENCORE sareak** helburua du Europako eskualdeek klima-aldaketara egokitzeko arloan eta haren ondorioak arintzeko moduei dagokienez dituzten esperientziak eta ikuspuntuak bateratzea, biodibertsitatearekin, urarekin eta lurzoruen babesarekin loturiko alderdiak aztertuta, besteak beste. Sareak indarra hartu du nazioartean, Europar Batasuneko herrialdeek ingurumenari buruz hartzen dituzten erabakietan eragiteko ahalmena gehituta.

2009tik 2010era honako tailer hauetan parte hartu dugu:

- Edinburgo, 2009ko apirila.
- Florentzia, 2009ko azaroa
- Namur, 2010eko martxoa.
- Olsztyn-go konferentzia, 2010eko ekaina
- Euskadi, 2010eko urria, Eusko Jaurlaritzak antolatutakoa eta anfitrioi gisa jardun zuen Uraren Euskal Agentziak.



nrg4SD

Nrg4SD Garapen Iraunkorrerako Eskualdeetako Gobernuen Nazioarteko Sarea da. Eskualdeetako gobernuen arteko garapen iraunkorrari buruzko politikak eratzeari buruzko informazioa eta esperientziak trukatzeko Johannesburgen izandako Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko



Gailurrean parte hartu zuten eskualdeetako gobernuek sortu zuten sarea.

2010eko ekainera, Urak Bonn-en izandako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioan parte hartu zuen.

2010eko azaroaren 8an eta 9an izan zen Mar del Plata hirian (Argentina) Baliabide Hidrikoei buruzko Latinoamerikako eta Karibeko nrg4SD IV. Elkarraldia, eta bertan izan ziren Uraren Euskal Agentziaren hainbat ordezkari.

7.6. URAREN parte-hartzea europar batasunaren deialdietan

URAK 2009. urteko LIFE+ programaren deialdian parte hartu zuen River Basin Recovery Strategies for Heavily Modified Industrial Rivers (UrbanRiver 2.0)” proiektuarekin koordinatzaile onuradun gisa, DEBEGESAk, Soraluzeko Udalak eta LKS eta GEOTECH enpresek ere parte hartu zuten proiektuan.

7.7. URAREN munduko foroa

2009ko martxoan Istanbulen izandako Uraren Munduko Foroko hainbat ekitalditan parte hartu zuen Urak, zehazki Munduko Baliabide Hidrikoen Garapenari buruzko Nazio Batuen Hirugarren Txostenaren aurkezpenean, baita nrg4SD sareak aldi berean antolaturiko Milurtekoaren Garapenaren Helburuak betetzeko bidean uraren kudeaketaren arloko eskualdeetako esperientziei buruzko ekitaldian, eta gizakiak ura eta saneamendua lortzeko duen eskubideari buruzko mahai-inguru batean.

7.8. Stockholm 2010eko World Water Week

World Water Week foro bakarra da ikuspuntuak eta esperientziak trukatzeko mundu osoko zientzialari, enpresa pribatu eta uren politiken ardura duten ente publikoen artean. Jardunbide egokiak berreskuratu behar dira eta begiratu bat egin uraren kudeaketan inplikaturiko ente eta erakunde guztien politikari eguneroko egiazko arazo eta premiei erantzuna emateko saio batean herrialde eta eskualde behartsuenetan. Topikoa aldatu egiten da urtero. 2010ean URAREN KALITATEAREN ERRONKA, PREBENTZIOA, ERABILERA MASIBOA ETA HORNIDURA izan zen hizpide

7.9. Mugaz gaindiko bilera, konferentzia atlantiko transpiriniarrarekin

2010eko irailean Konferentzia horren bilera bat izan genuen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin, eta bertan uren arloko lantalde bat osatzea erabaki zen. Bilera horrek Kantauriko ekialdeko (Bidaso, Errobi eta Urdazuri) plan hidrologiko espainol eta frantsesen koordinazioari buruzkoa izango da bilera hori, eta gauzak horrela, beste espediente arau-hausle bat bideratzea ahalbidetuko du, Uraren Esparru Zuzentzarauaren aplikazio txar bat dela-eta, ez baititu biltzen nazioarteko arto horiek.



Aurrekontuak

08






8.1. Ustiapen aurrekontua


GASTUAK	2009	2010
LANGILE GASTUAK	6.926.211	7.608.567
FUNTZIONAMENDU GASTUAK	7.080.759	5.913.969
GUZTIZKOA	14.006.970	13.522.536

GASTUAK





SARRERAK	2009	2010
USTIAPEN DIRU-LAGUNTZAK EJ	10.295.981	8.715.471
DIRU-SARRERA PROPIOAK	3.710.989	4.807.063
GUZTIZKOA	14.006.970	13.522.534


SARRERAK



8.2. Kapital aurrekontua

INBERTSIOA	2009	2010
ANTOLATZEKO, BIDERATZEKO ETA UHOLDEEN		
AURKA DEFENDATZEKO OBRAK	22.159.509	29.419.286
HORNIDURA- ETA SANEAMENDU-OBRAK	34.066.613	9.433.468
HIRUGARRENEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK	1.256.935	1.943.320
GUZTIZKOA	57.483.057	40.796.074

INBERTSIOA



09

Komunikazioa





9.1. Erantzukizun soziala

URA jakitun da Uraren Esparru Zuzentarauak (2000/60/EE) planteatzen dituen erronka nagusietako bat uraren plangintza-prozesuetan, kudeaketan eta erabileretan beharrezko den mentalitate-aldaketa dela, hain zuzen ere. Mentalitate-aldaketa horri arrakastaz ekiteko, URAk uste du beharrezkoa dela pedagogia sozialeko lan handi bat egitea, baita gizartea erantzunkide egitea ere, funtsezkoa baita hori ere. Ingurumen-prestakuntza, -hezkuntza eta -sentsibilizazioa, uren arloan, funtsezko atal bihurtuko dira horrela Uraren Esparrua Zuzentarauaren ingurumen-eskakizunak lortzeari begira. Gauzak horrela, URAk uste du ikuskerak, ingurumen-sentsibilizazio eta -hezkuntzako arloari gagozkiola, herritarrari ahalbidetu behar diola gaur egun nagusi den pentsamenduarekiko bestelako prentsamendu bat lantzea, egungoa partziala eta nahasia baita, eta batez ere, topiko eta inertzia historikoez betetakoa, eta horiek argitu behar dira nahitaez. Funtsezkoa da herritarren artean hainbat kontzeptu sustatzea, hala nola aurrezpena, eraginkortasuna eta ingurune hidrikoaren kontserbazioa, gizartearen mentalitatea aldatzeko erronkari aurre egiteko gai den ingurumen-prestakuntza, -hezkuntza eta -sentsibilizazioko estrategia bat bultzatuta. Horrela soilik bultzatu ahalko da inteligentzia kolektibo eta herritarren sentsibilitate berri bat uraren balioekiko.

Hori guztia kontuan izanda, URA hainbat informazio- eta prestakuntza-ekintza garatzen ari da herritarren artean uraren erabilera arduratsua eta eraginkorra sustatzeko, eta aldi berean, uraren kudeaketa iraunkorra guztion kontuan dela helarazteko. Ildo horretan, URARI egoki iruditu zaio beste ente, erakunde eta kolektibo batzuekin lankidetzan aritzea ekimenen prestakuntza-hedadura handiagoa izan dadin.

Horrela, Araba Uraren Agentziaren —Arabako Foru Aldundia— lankidetzarekin hainbat prestakuntza-hitzaldi eman ditugu Arabako hainbat udalerritan, Uraren Esparru Zuzentaruari buruz informazioa emanez, baita aribideko plangintza hidrologikoko prozesuari, inguru hidrikoaren egoerari, dagozkion afektazio nagusiei eta dagokion egoera ekologikoa hobetzeko Administrazio hidraulikoak burutu nahi dituen jardun-ildo nagusiei buruz ere.

Era berean, hiru Lurralde Historikoetako Ingurugelekin (CEIDA zentroak) lankidetzan, prestakuntza-hitzaldi ugari eman ditugu, irakasle zein ikasleentzako Kasu horretan, bikoitza izan da prestakuntza-lana. Alde batetik, hitzaldi didaktiko bat izan genuen, “Uraren kultura berri baten erronka: ura eta ibaiak ulertzeko beste modu bat” izenburupean eta ikastetxeetan bertan eman da Bestalde, eta prestakuntza-hitzaldiaren osagarri gisa, zenbait ibai-gela egin ditugu irakasle eta ikasleekin, hau da, ibai-tarte bat kurritzea ibai-ekosistemarekin loturiko zenbait alderdi azaltzeko.



Beste jarduera batzuk eztabaida-foroak izan dira, hainbat gizarte-kolektibo biltzen dituztenak, hala nola Udal Agenda 21 programak eta EAEko Eskola Agendak uraren kudeaketa iraunkorrarekin eta erabilera eraginkorrarekin loturiko zenbait gairi buruz informatzeko eta prestakuntza emateko.

Informazio- eta prestakuntza-lan bera egin dugu EAEko eta Estatuko zenbait ingurumen-elkarterekin, fundazioekin, askotariko elkarterekin eta bestelako gizarte-kolektibo eta kolektibo profesionalekin egindako elkarte-foroak baliatuta, hala nola GAIA elkarte ekologista, Nazioarteko Elkartasuna, Tomás y Valiente Fundazioa, Bakeaz, Tortosako Casa del A'igua, eta abar.

9.2. Gizarte sentsibilizazioa

URAk uste du prestakuntza-lanak ibilbide luzea izan behar duela eta etengabeko prestakuntzako dinamika baten zati izan behar duela, uraren erabilera arduratsua eta eraginkorra sustatzeaz gain, administrazioaren eta herritarren artean konplizitatea ere sortzeko baliagarri izango dena.

Uraren marketineko, komunikazioko eta erantzukizun sozialeko estrategia ahalegin jarraituan oinarrituta dago, herritarrei Uraren Euskal Agentziak eskainitako zerbitzuen informazioa eta datu garrantzitsuenak baliatzea ahalbidetzen dien ahaleaginean, hain zuzen ere.

URAk komunikazio-plan bat egin du sentsibilizazio-kanpaina bat egiteko. Komunikazio-plan horren helburuak honako hauek dira:

- URA herritarren artean ezagutaraztea.
- URAREN lana eta agentziaren sorrera zabaltzea.
- Ura aurrezteko iragazkiak banatzea eta gure ingurunean urak duen garrantzia erakustea.
- Urari eta haren kontsumoari buruz kontzientziaztea.
- Etxeetako uraren kostua murriztea, uraren aurrezpena irakatsiz.
- Uraren erabilera arduratsuen eta EAEko itsaso eta ibaien garbitasuna atxikitzearen garrantziaren sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpaina bat burutzea.
- Web-orria eguneratzea, generoaren alderdia nabarmen indartuta.
- Webgunean azterlanak komunikatzea.
- Diru-laguntzak abiaraztea sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren esparruan, 200.000,00€ ko zenbatekoaz.
- Uraren inguruneko jakintzaren eta know how-aren transferentzian oinarrituriko nazioarteko akordioak.

Arestian adierazitako helburuak burutzeko, honako komunikazio-erreminta hauek ezartzen dira:

- Informazio-hitzaldiak ikastola eta ikastetxeetan.
- Ibai-gelak irakasle eta ikasleekin.
- Iragarkiak bertako prentsan.
- Uraren Museoa Sobronen.
- Elkarrizketak irratan.
- Uraren Munduko Eguna.
- Parte hartzeko eta ingurumen-hezkuntzako mintegia, uren arloan.




- Prentsa espezializatuko artikuluak.
- Prentsa-dosierra.
- Webgunearen mantentzea.
- Informazio-katalogoak.
- URA Agendak.
- URARI eta ur-aurrezpenari buruzko informazio-panelak.



10

**URA eta
gobernalu korporatibo ona**





Gizarteak enpresei iraunkortasun-konpromiso formalak har ditzaten egiten dizkien eskaerak ere jasotzen ditu URAk. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailak Gobernu Korporatibo Onaren eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren arloan gauzatu dituen norabideei jarraiki, abian jarri da URA eta norabide horiek ezartzeko lehen urratsak eman ditu.

URAn lantzen ari garen puntuetako batzuk honako hauek dira:

- Informazio-gardentasuna, web-orrian txosten eta azterlanak eguneratu eta argitaratuta.
- Barne-jokabideko kode etikoaren zirriborroa, agentziaren eguneroko jarduerari begira; jabariaren kudeaketaren arloan, uraren kanonaren kontrola, uholdeetako jardunak; plan-gintza eta obren arloan, obra propioen edo azpikontratatuaren kontrola eta jarraipena horien kudeaketaren bikaintasunaren bilaketan; barne-jokabidean, opariak edota bestelakoak ez onartzea. Oro har, lan-erreminten erabilera arduratsua, bulegoen ingurunearen barruan zein kanpoan.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboko politikari buruzko dokumentuaren hasiera, argi eta garbi nabarmenduz, ikuskera, misioa, balioak, erakundearen helburuak, jokabide-kodea, jardun-esparrua eta abar.
- Honako hauekin izan beharreko berariazko harreman-politikaren zirriborroa:
 - Barne-bezeroa
 - Kanpo-bezeroa
 - Laguntzaileak
 - Hornitzaileak
 - Enplegatuak
 - Gizartea, oro har

10.1. Pertsonak kudeatzea

1. Pertsonak lehenik

- a. Profesionalen talde zabal batek osatzen du URAREN giza taldea, eta ekarpena egiten dute beren jakintzarekin Uraren Esparru Zuzentaruaren balio eta helburuak lortzeko eta, horrenbestez, egunero iraunkorragoa izango den planeta bat lortzeko.

2. Premisak Pertsonen Kudeaketa Korporatiboan

- a. Balio eta helburuen araberako kudeaketab. Delegación y Liderazgo
- b. Eskuordetzea eta lidertza
- d. Parte-hartzea eta onespina



- e. Barne-komunikazioa
- 3. **Barne-komunikaziorako lagungarriak diren lantaldeak.**
- 4. **Lidertza-plana zertarako?**
 - a. balio berriak garatzeko,
 - b. lantaldeetako kideak konprometitzeko
 - d. emaitzak hobetzeko helburuak lortzeko bidean.
- 5. **Gogobetetze-inkesta 2010eko ekitaldirako.**







URA Uraren Euskal Agentzia erakunde oso gaztea da oraindik, hobetzeko aukera handia duena. Egunerakoak jardun asko inposatzen dizkigu gure jardueren garapenean. Horregatik, jardun-ildoak argi izate aldera, konpromiso batzuk ezarri nahi izan ditugu, bidea egiteko baliagarri izango zaizkigun lau ildo edo erronketan laburbilduko direnak. Helburua dugu 2009-2013 aldirako definituriko proiektu indartzea.

2011rako koiuntura ekonomikoa zaila izango dela dirudi. Jabetzen gara zer arazo planteatzen duen egoera horrek gure jarduera egikaritzeko, ia osorik oinarrituta baitago prebentzio-jardueretan eta ur-masak hobetzeko jardueretan. Hori gorabehera, URAREN Zuzendaritzak honako erronka hauek planteatu ditu, egunero Erantzukizun Sozial Korporatiboaren errealitatetik hurbi-lago egoteko helburuarekin betiere:

- **Lidertza:** konpromisoa EAEko pertsona eta erakundeekin.
- **Bikaintasuna** bilatzea uraren kudeaketan, ikerketan, zerbitzuen ematean eta erakunde-kudeaketan
- **Hazkundera eta zabalkuntza:** estatuan eta nazioartean erreferentzia izatea uraren kudeaketan. Garrantzitsua da “marka” sendotzea eta erreferentzia eztabaida ezina bihurtzea uraren arloan EAEn.
- **Bezeroarentzako orientazioa** URAREN barruan pertsonen gogobetetzearen bilaketaren bidez, egonkortasuna, sustapen-aukerak eta jakintza ekarriz; URAtik kanpo, aldiz, bikaintasuna bilatuz bezeroaren gogobetetzearen bidez.

Helburu horiek lortu nahi baditugu, arinak eta dinamikoak izan behar dugu erabakiak hartzeko garaian, eta aldi berean, malguak gure agentzia-ereduaren kudeaketan.

Koiuntura horretan planteatzen dugu alderdi kualitatiboen aldeko apustua egitea, kuantitatiboen alde bainoago. Prebentzio-ekintzak, denboran iraungo duten leheneratze-ekintzak, eta posizionamenduko adibide argia izango direnak etorkizunean, gure Lurralde Historikoaren barruan zein kanpoan.

1. Berrikuntzaren aldeko apustu irmoa bai proiektu berriak garatuz eta baita erakunde arteko sinergiak sortzen dituzten diru-laguntzak abiaraziz.
2. Estatuko eta nazioarteko akordio eta hitzarmen berriak indartzea, aldi berean egungoak sendotuz eta finkatuz
3. “URAREN ahotsa” sortzearen aldeko apustu irmoa egitea.

